

arnasber- ritzen

Euskalduntze prozesua
arnasberitzen, ezkerretik
eta independentismotik





Plaza Hutsa

Zuatzu Enpresa parkea
Zuatzu, Easo Eraikina, 4 behea.
20018 Donostia (Euskal Herria)
www.sortu.eus

Diseinua eta maketazioa

Lubaki Grafik Faktøry

Inprimaketa

Gertu inprimategia (Oñati)

Lege Gordailua

D 01188-2021



arnasberritzen

Euskalduntze prosezua arnasberritzen,
ezkerretik eta independentistotik



| | |
|----------------------------------------------------------------------------|-----------|
| Sar hitza | 11 |
| Euskalduntzean fase berri baten beharraz | 13 |
| Etorkizunaz: Mundu ziurgabe eta kaotikoa ortzi-mugan | 21 |
| Aterki ideologiko (zahar)berritua | 27 |
| Prozesu independentista: Jauzi berri baterako oinarri estrategikoak | 33 |
| Helburu estrategikoak: euskalduntze fase berriaren helburuak | 37 |
| Ildo estrategikoak: Lau helizedun errota | 41 |
| Hizkuntza, politika eta hizkuntza-politika berria | 41 |
| Euskaingintzaren indarberritzea | 47 |
| Arnasguneak | 49 |
| Herri kontakizuna birsortzeko bulkada kulturala | 52 |
| Azken hitza | 55 |

Sar hitza

Prozesu luze bat amaitzen da dokumentu honen aurkezpenarekin. Iazko otsailaren 22an Gasteizen egindako Plaza Hutsa tailerrean eztabaidatu zen oinarritzko dokumentua ontzat jo genuen. Ondoren, aurtengo urtarrilean Euskararen Plaza Hutsa tailerrean oinarritzko dokumentu hori hainbat ikuspuntutatik aberastu genuen. Azkenik, ezker independentistako kideen ekarpenak jaso eta adostasun maila neurtzeko zenbait herritan aurkezpen saioak egin genituen. Hain zuzen, esku artean duzun dokumentua berreuskalduntze prozesuari eta euskalgintzari buruz ezker independentismoak egindako gogoeta estrategikoaren azken emaitza da.

Euskal Herri osorako oinarri izan nahi duen dokumentua osatzen ahalegindu bagara ere, kontziente gara Ipar Euskal Herriari begirako azterketa egin beharra dagoela. Izan ere, puntu asko bateragarriak izan daitezkeen arren, ikuspegia, premiak, estrategiak eta tresna

ezberdinak izan daitezkeela ohartuak gara. Ezinbestean, beraz, Ipar Euskal Herrian bertatik bertarako gogoeta egin behar da, eta uste dugu dokumentu hau oinarri egokia izan daitekeela, eduki aldetik ez ezik, eskemaren ikuspegitik ere, lankeeta propioa egiteko une egokia iristen denean.

Euskalduntzean fase berri baten beharraz

50eko hamarraldian hasi zen euskalduntze prozesuaren erregia orduko modernizazio-jauziari eman zitzaion erantzun utopiko-berdin-zalea izan da. Amets bat ekoitzi zen: Euskal Herri euskalduna. Amets zabalago baten parte zena: Euskal Herri aske eta berdinzalea. Orduan piztutako mugimendu haren bulkadaren eragile nagusiak euskararen galeraren sentrazioak sortutako larritasuna eta askatasun egarria -zentzu zabalean ulertuta- izan ziren, besteak beste. Euskaltzaletasun hartan, euskalgintzan bertan, bazegoen XIX. mendetik eta Pizkundearen garaitik zetorren hari bat, guztiz eten ez zena.

Amets edo utopia horrek mugimendu bat sortu zuen, mugimendu euskaltzalea (euskalgintza), euskalduntze prozesuaren motorra edo arnasa izan dena. Euskalduntze prozesua trakzionatu duena herrimugimendua izan da oro har, herrigintzatik eman zaio arnasa euskararen biziberritze prozesuari.

Euskalgintzak, modu intuitibo samarrean batzuetan eta modu erabat kontzientean besteetan, euskararen biziberritzea ardaztu duten zutabe batzuk hautatu eta landu ditu: Corpora (euskara batua), euskararen eta euskarazko irakaskuntza (ikastolak, euskalduntze-alfabetatzea eta hezkuntza publikoa geroago), hedabideak, kulturgintza (literatura, musika, bertsogintza, antzerkigintza), nagusienak aipatzearren.

Asko da aurreratu dena. Azken hamarraldietako euskalduntze prozesua eredugarria da kanpoko hiztun-komunitate minorizatuentzat. Euskalduntze prozesua herri-garapen edo eraldaketa prozesu zabalagoaren parte bat izan da. Euskal Herrian herrigintza ziklo oparoa garatu da XX. mendearen bigarren erdialdean, anomalia bat izan dena Europa mailan.

Aitortza zor zaio mugimendu euskaltzaleari eta, oro har, euskararen alde egindako ekimen orori. Egindako lanak bizia eman dio euskarari. Galera prozesu azkarra gelditzeko gaitasuna izan du. Inolaz ere gutxietsi behar ez den lorpena da. Galera gelditu, nahi eta espero zen neurrian lortu ez bada ere, eta hizkuntza bermatzeko gutxieneko atalaserira iritsi ez bagara ere, euskalduntze eta biziberritze prozesua abian jartzeko gaitasuna izan du. Horri ere tamaina hartu eta behar beste baloratzea komeni da.

Euskararen biziberritze emankor hau Hego Euskal Herrian bi estrategia politiko dibergente izan diren testuinguru historikoan gertatu da. Lehenak, Espainiako sistema konstituzionalak Hego Euskal Herriaren garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala ukatzen zuela uler-tu, eta haren kontra borrokatu zuen, energiak behetik gorako herri-

-eraikuntzan jarriz. Bigarrenak, aldiz, Hego Euskal Herriaren garapena konstituzioak ezarri zuen autogobernu sistemaren baitan posible zela proposatu zuen. Paradoxikoa eman dezakeen arren, euskararen biziberritze prozesu hain emankor hori bi estrategia politiko horiek etengabeko talkan egon diren sasoian gertatu da.

Iparraldeari dagokionez, bestalde, 80ko hamarraldian Ipar Euskal Herriaren aitortza instituzional eta kulturalaren aldeko herri-mugimenduak azkartu egin ziren eta euskara aitortza soziala lortuz joan zen. Euskararen aldekotasuna mugimendu abertzaletik harago hedatu da azken 15 urteetan, eta Ipar Euskal Herria baturik agertu da bere aldarrikapenetan Parisen aitzinean, gero eta nabarmenago. Halere, Parisen estrategia ukatzailearen aurrean euskal hiztun-komunitateak euskararen mesedetan batasun estrategia bat garatu badu ere, batasun hori oso heterogeneoa izan da, eta bere baitan ikuspegi eta ideologia askotarikoak bildu ditu. Parisek duen indar eta eraginaren poderioz, ordea, euskal hiztun-komunitatean izan diren ikuspegi ezberdin horiek ez dira lehen planoan ageri izan.

Hamarraldi hauetan guztietan ez da egon euskararen normalizaziorako edo euskalduntze prozesurako bide-orri edo eredu bakar adosturik (Txepetxen eredu, Fishmanena, aitaren etxea edo amaren sua...), ezta helburu nagusi edo ipar partekatu eta adosturik ere (Euskal Herri euskalduna, diglosia egonkorra, hiztun-komunitate trinkotu eta bizia...). Eta, bestalde, garai jakin bateko espektatiba edo uste batzuk ez dira bete edo osatu, ezagutzak erabilera zekarrela zioen ustea kasu. Halaber, euskararen aldeko strategiak ez dira beti eraginkorrenak izan lurraldetasunaren ikuspegitik. Euskararen lurraldea

zabala eta askotarikoa izanik, ez da beti asmatu berreuskalduntze estrategiak lurralde-eremu bakoitzeko errealitate soziolinguistikora eta soziokulturalera doitzen.

Gaur hamarraldien joan-etorrian iraun duen euskalduntzean fase berri bat irekitzeko unea da. Eremu batzuetan euskararen erabilera beheranzko joera hasi du, lehen aldiz azken hamarraldietan. Ezagutzaren moteltzea ere antzematen da. Datu positibo ukaezin batzuen ondoan nahi baino datu kezkarri eta itzal gehiago ditugu, herri honetan egin den eta egiten ari den ahalegin kolektibo erraldoiaren ondorioz bestelako zerbait esperoko genukeen arren. Denean garrantzitsuena, nolana ere, zera da: dauzkagun datuekin, eta galera-irabazien arteko erlazioa gorabehera, euskararen etorkizunak gutxieneko bermea duela esan ahal izatetik urrun gaude, baita euskarak posiziorik onena duen lurraldeetan ere.

Izan ere, ezagutzan asko aurreratu den arren, gaur egungo euskaldunek garai batekoek baino harreman-sare erdaldunagoa edota eleaniztunagoa dute. Euskaldunen ia erdiak erdal elebidunak dira, hau da, erraztasun handiagoa dute erdaraz egiteko euskaraz egiteko baino. D ereduek ez dute inolaz ere bermatzen behar adinako hizkuntza gaitasuna. Gaurko hizkuntza ohiturekin etxeko transmisioa ez-baian dago etorkizun hurbilean.

Oro har, euskal eragile politikoek (erakunde zein alderdi politikoek) ez dute komunikazio espazio propioa sendotzeko politikarik garatu azken urte luzeetan eta, gaur egun ere, komunikazio plan baten faltan jarraitzen dugu; noiz eta digitalizazioaren aro global alda-

korrean erabat murgildu garenean, non euskararen bizitasun digitala bermatzeko tresnen eta edukien eskaintza ingurune digitalaren alda-keta bizkorretara egokitu behar den.

Euskal kulturaren transmisioaren etenez ohartarazi digute berriki hainbat azterketek. Azterketa horietan egungo hezkuntza sistemen ezinak jarri dira agerian, baina baita errealitate orokorrago bat ere: sozializazio eragile nagusi izan diren instituzioak (familia, eskola, parekoen taldea eta komunikabideak) indarra galtzen ari dira kulturaren transmisioari dagokionez, Interneteko agente erraldoien mesedetan. Eta ezin dugu ahaztu bereziki familia eta parekoen taldea (eta azken hamarkadetan eskola) izan direla euskal kulturaren transmisio-eragile nagusiak.

Halaber, migrazio-fluxuen eraginez kulturalki inoiz baino anitzagoa izango den Euskal Herrian, euskarak jendarte demokratiko eta inklusibo baten eraikuntzan bete beharreko funtzio soziala eta horrek eskatzen dituen politikak pentsatzen hasi baino ez gara egin. Zentzu horretan, dugun esperientziatik zer ikasi handia dugu. XX. mendean ere etorkin asko jaso zituen Euskal Herriak. Orain baino egitura ahulagoekin eta baldintza eskasagoetan, ezkerreko ideologia abertzalea gai izan zen euskara osagai integratzaile gisa onartua izan zedin, hala praktikaren mailan (migratzaile ugari euskaldunduz) nola diskurtsoaren mailan (euskara “guztion” ondareztat harturik).

Azterketa orokor honen argitara zera esan dezakegu: gaurdaino ekarri gaituen euskalduntze prozesua agortu egin da eta orain arteko hizkuntza-politikek goia jo dute. Honako hau momentu berezia da eta

horren kontzientzia argia behar dugu: euskalduntze prozesuan aurrera egiten jarraituko dugun ala orain arte irabazitakoaren zati handi bat galduko dugun, horixe da jokoan dagoena.

Euskararen egoera koadro zabalago baten parte da. Euskal Herriaren metabolismo sozial, ekonomiko eta kulturala ahul ageri da modernizazio-jauzi berri baten testuinguru historikoan. Eztabaida ez da botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusten dugun, baizik botilak zuloa duen. Bizi dugun testuinguru historikoari zorrotz begiratu behar zaio. Historiaren azelerazio fase batean gaude. Modernizazio-jauzi hori inoiz ezagutu gabeko abiadan gertatzen ari da, krisi-aro arriskuetsu eta ziurgabeen murgildu gara.

Espainia eta Frantzia, behiala estatu-nazio indartsuak, potentzia ekonomiko sendoak eta modernitatearen ikurrak izan zirenak, krisian dauden sistema politikoak dira egun, autoritarismora lerratzen ari direnak. Krisi egoera horretan, estatu-nazio homogeen eta ondo mugatu horiei eusteko saiakerek euskara biziberritzeko ahaleginen kontra egingo dutela aurreikus dezakegu.

Edozein kasutan, epe ertainean datorkigun jendarte-moldea nolatsukoa izango den aurreikustea ariketa batere ziurra eta erraza ez den arren, sentsazioa da Mont Blancera kaleko oinetakoekin, kranpoirik gabe eta ur eta jatekotik gabe igo nahi dugula. Gaur egun, horrenbestez, ez gaude bideari ekiteko behar bezain egoki jantzita, bideko zailtasunei eutsi eta aurrera egiteko bestelako ekipamendu bat beharko dugu (estrategia eta planifikazioa, baliabide ekonomikoak eta teknikoak, estatus juridikoa, atxikimendua eta motibazioa).

Alegia, euskalduntze fase berri bat pentsatu eta gorpuzteko garaia iritsi da.

Euskaingintzaren baitan eta gizarte zabaleko beste zenbait sektore politiko eta sozialetan adostasun zabal samarra lortu du, euskalduntze prozesuari dagokionez, jauzi handi bat egin behar delako ideiak. Ez aurrera ez atzerako egoera batean, aldaketa sakon baten eta jauzi baten beharra dago, eta orain abiatu eta datozen urteotan gertatu behar den jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa da.

Etorkizunaz: mundu ziurgabe eta kaotikoa ortzi-mugan

Euskalduntze fase berria testuinguru jakin batean gertatuko da, eta testuinguru horrek erabat baldintzatuko du prozesua bera. Fase horretarako estrategiak saiatu beharko du, horrenbestez, euskalduntze prozesuak aurkituko dituen agertokiak zein izanen diren irudikatzen. Jakina, ezin dugu etorriko diren agertoki berri horien argazki zehatzik eta ziurrik egin. Bai, ordea, agertoki horietarako funtsezkoak edo gutxienez esanguratsuak izan litezkeen elementu eta gako batzuk aurreikusi, estrategia marrazterakoan kontuan hartu beharko direnak.

Historian barrena mugimendu azkarreko eta bortitzeko aldi eta uneak lehenago ezagutu baditugu ere, bistakoa da datozen garaio-tan prozesu politiko, ekonomiko, sozial, kultural, teknologiko eta bestelakoen azkartzea gertatuko dela. Azelerazio fase batean gaude eta, itxura guztien arabera, horrela izanen da aurrerantzean ere, gero eta

bizkorragoa gainera. Horrek garai aldakor horietara azkar eta ongi egokitzeko gaitasun handia eskatuko dio eraginkor izan nahiko duen estrategiari.

Kapitalismoak, krisi zantzu nabarmenekin baina oraindik ere indarrean dagoen sistema ekonomiko, politiko eta kultural horrek, gauzak errotik aldatu ezearan planeta bera kolapsora eraman dezakeen molde ugariak krisi-agertokia dakar: krisi ekonomikoa, soziala, politikoa, ekologikoa, kulturala, energetikoa, sanitarioa... Askotariko krisi global horrek, zalantzarik gabe, sektorerik zaugarrienak joko ditu lehendabizi: populazio geruzarik pobreenak, migratzaileak, emakumeak..., eta hizkuntza gutxiak.

Gaitasun eta berrikuntza teknologikoa gizakiaren oso aspaldiko ezaugarria bada ere, datorren aro honetan digitalizazioak eta, bereziki, adimen artifizialak beste tamaina bat hartuko dute, eta, ziur asko, une honetan nekez irudikatuko dugun neurrian blaituko dituzte eguneroko bizitza eta jendartearen garapena. Zer eta nola izanen den nekez irudikatuko dugu, baina, dudarik ez dena, erabat baldintzatuko dituzte bizimodua eta harreman oro, baita hizkuntza bidezko harremanak ere.

Krisi-agertokiek berekin ekarriko dituzte migrazio-fenomeno eta populazioen mugimendu masiboagoak, eta horiek ere kolokan jarriko dituzte orain artean indarrean edo nahiko egonkor egon diren errealitateak, ereduak, usteak eta beste hainbat alderdi. Agertoki horrek, besteak beste, kultur aniztasun handi bati erantzuteko eta errealitate hori egoki kudeatzeko beharra areagotuko du nonahi.

Joera demografikoetan aldaketa handirik gertatu ezean, hainbat lurraldetan -Euskal Herrian, esate baterako- zahartze demografikoa gertatuko da, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Aipatutako balizko agertoki horietan, eta agertoki horietarako aurreikus litezkeen ezaugarri eta baldintzen ondorioz, ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna pisu handiko konstante bihurtuko dira, bai norbanakoarentzat, baita kolektibitatearentzat ere. Etorkizuna aurreikusteko -baita epe laburrekoa ere- eta norberarentzat nahiz taldearentzat etorkizunerako proiektzioak eta apustuak egiteko zailtasun handiak sortuko dira.

Orain arte nahiko sendotzat jo ditugun lehentasunak neurri handi batean alda litezke krisi-agertoki orokor baten aurrean eta ziurgabetasun eta ezegonkortasun egoera baten aurrean.

Aldaketak gerta litezke lehentasunetan eta, halaber, aldaketa handiak eta azkarrak gertatuko dira lan-munduan eta lan-harremanetan, besteak beste. Baita norberaren harreman-sareetan ere, harremanen gunea eta pisua inguru hurbiletik urrutiago dauden espazioetara garraiatuz.

Agertoki berriek kolapsorako bidera eramateko potentziala duten bezala, gerta liteke bestelako bidea hartzea ere, eta diskurtso, ideia eta praktika berrietarako bidea indartzea eta hauspotzea, alternatiba berriak sortzea, ageriko krisi sakonak berak erreakzio hori bultzatuta eta sorrarazita.

Etor litezkeen egoera kritikoek, beraz, kolapsoa bezala, paradigma aldaketa edo trantsiziorako aukera ere ekar dezakete, kapitalis-

moak gaur egun proposatzen duen kontrako norabidean hain zuzen ere. Aukera bata edo bestea gertatuko den ezin da jarrera determinista batetik epaitu; bidea egiteko eta erabakitzeke dago.

Euskal Herrira etorrita, datozen urteotan argitu eta ebatzi beharreko kontua izanen da gure auzoko Estatuaren krisiek hartuko duten norabidea, eta horrek gurean izanen duen eragina. Zantzu guztien arabera, badirudi Estatuak inboluzioaren eta autoritarismoaren bitetik joko dutela, beste inondik baino gehiago. Aurreikuspen hori bera suma liteke munduko hainbat lekutan.

Bitartean, Euskal Herria nazio gisa gorpuzteko eta indartzeko aukerak izanen dira, baina baita arriskuak ere. Izan ere, naziogintza prozesu bat da, zeinetan aurrera eta atzera egin daitekeen.

Testuinguru horretan, ezkerreko independentismoak datozen urteotarako egitasmo eta alternatiba politiko sendo, integral, osatu, berritu eta ilusionagarria aurkeztu behar dio Euskal Herriari, herritarren behar, interes eta desirekin bat egingen duena, gaurko eta biharko erantzun gisa ikus litekeena, eta egitasmo hori alternatiba egingarri bihurtu beharko da.

Euskalduntze prozesuari dagokionez, datozen urte eta hamarkadetan lurraldearen zati batean ezagutzaren unibertsalizatorako hurbilpen bat ikusi ahalko da. Hurbilpena diogu, batez ere eskolatzearen bitartez gertatuko den ezagutzaren hedapen horretan zulo handi batzuk ere geldituko direlako: EAEn bertan hezkuntza sistemak euskaldundu gabe utziko dituen guztiak, batetik, eta euskaldunduko direnen euskalduntasunaren nolakotasuna, bestetik. Eta, jakina, lurralde

horietatik kanpo, ezagutza orokor edo unibertsal horretatik erabat urrun dauden lurraldeak, Nafarroako zatirik handiena eta Iparraldea, zehazki.

Euskaldunon tipologia ere, bestalde, aldatuz joan da azken hamarkadotan, eta azkeneko urteotan hartu duen joera indartuko da: gero eta gehiago izanen dira erdal elebidunak, besteak beste.

Eta oso litekeena da, euskaldunaren tipologiaz gainera, datozen urte eta hamarkadetan euskaldunen eta, oro har, herritarren euskararekiko motibazioak aldatzea. Ez denak, eta ez erabat, baina bai modu esanguratsu batean, gizartearen bizimoduan, usteetan, balioetan eta ohituretan aldaketa handi bat gertatuz gero nekez pentsa bailiteke horrek hizkuntzarekiko erlazioari ez diola eraginen.

Euskaldunon tipologia eta herritarren motibazioak bezala, euskalgintza bera ere aldatzen ari da, baita euskaltzaleen ekarpenak egiteko moduak eta ereduak ere. Gizartearen beste arlo askotan bezala, eta beste alorretako militantzia-ereduetan bezala, euskalgintzan ere lanean aritzeko moduak, ikuspegiak, espektatibak, konpromisoak... eraldatzen ari dira, eta datozen urteotan horren ondorioak kontuan hartzekoak izanen dira.

Etorkizun hurbileko agertokietan digitalizazioa faktore nabarrena eta indartsua izanen dela aurreikus daitekeen moduan, teknologiaren garapena ere hizkuntzen mundura eta hizkuntzen erabileraren esparrura ere iritsiko da. Aukerak eta arriskuak, biak batera etorriko dira, eta lehenak baliatzeko eta bigarrenak saihesteko prest egon beharko du euskaldunon hizkuntza komunitateak.

Hizkuntza-ideologia ezberdinen arteko lehia aspaldikoa da eta errealitate saihestezina izan da aspaldian, batzuetan ageriago, beste batzuetan gordeago. Lehia hori ez da desagertuko, eta eredu ezberdinen talkak jarraituko du. Ideietan eta diskurtsoetan gizartearekin, herritarrekin eta, bereziki, haien errealitate, desira, interes eta beharrek hobekien konektatzen duen hizkuntza-ideologiak abantaila izanen du lehia horretan.

Aterki ideologiko (zahar)berritua

Euskalgintzak azken hamarraldietan intuiziotik eta dinamika solte samarretatik ikuspegi estrategikora, egituratzera, profesionalizaziora egin du jauzi, eta horretan urrats nabarmenak egin eta sendotasun ukaezina erakutsi du. Baina, aldi berean, azken garaiotan, mugimendu euskaltzalea apaldu eta lausotu egin da.

Alabaina, euskalduntze prozesuaren eragile nagusia, orain arte bezala, herri-mugimendua izango da aurrerantzean ere. Euskararen biziberritzea prozesu sozial eraldatzailea baita, eta ez baitago eraldaketa sozialik mugimendua sortzeko gai den komunitate ahaldundurik gabe. Ahalduntzeko modua euskaldunok, indibidualki zein hiztun-komunitate gisa, azpiratuak garelako kontzientzia hartzea da hain zuzen; eta, gauden lekutik, gizarte osoarentzat (hiztun mota edozein dela eta herritar guztientzat, alegia) onuragarria den herri-proiektua gorpuzteko ahaleaginean engaiatzea.

Komunitate batek emozio, desira eta ideia multzo bat behar du ekiteko, ahaldundu eta mugimendu izateko; ideologia, funtsean. Euskararen egiazko gorputze sozialera iristeko aterki ideologikoaren lan-keta da, hain zuzen, erronka handienetakoa. Mugimendua birsortzeak hizkuntza-ideologia berritzea eskatzen digu.

Azken batean, bi estatu handiren hegemonia linguistikoen mendean bizi da Euskal Herria. Frantsesez edota gaztelaniaz derrigorrez hitz egin behar dugu bizi ahal izateko, gainerako hizkuntza-komunitateek ezin dute hori bera egin. Ondorioz, euskarari menpeko estatus juridikoa esleitzen zaio. Euskara ez da hizkuntza normalizatua izango bere lurralde guztietan hizkuntza ofiziala ez bada. Hori, bistan da, asimetria nabarmena da. Toleratu egiten da erdaldunen elebakartasuna eta galarazi euskaraz bizi ahal izatea. Natural hartzen da erdaldunak erdara hutsean bizitzea eta, berriz, euskaldunak euskara hutsean bizitzea galarazi egiten da.

Eta horrek guztiak aterki ideologiko bat du, herritarren gogoan hamaika mezuren bidez ibilarazi eta txertatzen dena, ardatz nagusi baten gainean: euskararen sustapena, ahularen aldeko neurria, inposatzailea dela. Ideia hori indar berriz pizten ikusi dugu azken garaio-tan eskuin espainiar zalearen zelai ohikoetan ez ezik, baita ustez euskaltzale den zentro eta ezker espainiar zalean eta, zer esanik ez, alde guztietako ikuspegi jakobinoen defendatzaile sutsuen ahoetan ere. Diskurtsiboki aldrebesko mundua egin zaigu nagusi: azpiratua inposatzaile; edo, zehatzago, inposatzaile izatearen akusazioa, azpiratze-ko tresna. Eta, txarrena, amua jan, eta horrek berak galarazten digula gezurra agerian uzteko diskurtso bateratu eta indartsuak eratzea.

Halaber, zailtasunak ditugu euskararen gorpuzte sozialerako eta euskal hiztunen eskubideak bermatzeko beharrezkoa den aterki ideologikoa gaur egungo mundura egokitzeko, berritutako eta egokitutako diskurtsoen bidez.

Diskurtsoa berritzeko, bi ildo dira bereziki interesgarriak, itxura batean kontraesankorrak eman dezaketenak baina sakonean osagarri direnak: batetik, hizkuntza gatazka identitate auzi hutsetik ateratzen duen diskurtso eta praktika lerroa. Hau da, euskaldun/ez-euskaldun parametroetatik jauzi egin eta herritar/hiztun eskubideetara eraman; hots, demokrazia eta justizia sozialaren terminoetara. Feminismoak edota erabakitze eskubidearen gaineko diskurtsoak egin duen bezala, aldez aurretik identitarioak liratekeen auziak herritar/ez-herritar, eskubide osoko/eskubiderik gabeko, demokrata/ez-demokrata parametro unibertsalizatueta eramatea. Hizkuntza eskubideen aldeko borroka botere-harremanak eraldatzearekin lotzen da, beraz; justizia sozialean eta demokrazian oinarritzen den beste jendarte eredu baten aldeko ekimena da.

Horren osagarri litzatekeen ildo diskurtsiboak, berriz, herri/kultur identitatearen aldarrikapenaren ezkerreko irakurketa positiboa berreskuratu beharko luke: pertsonen eta kolektiboen nor izatearen, burujabetzaren (erabakimenaren) esparruan kokatu. Kultur homogeneizazioa da neoliberalismoaren lanabes eragingarrienetako bat, desira eta espektatiba berdinak dituzten pertsonak nahi ditu munduko edozein lekutan. Esan bezala, euskal egitasmoak homogeneizazioaren kontrakoa, berdintasunaren eta askatasunaren aldekoa izan behar du.

Identitatearekin egiten dugu topo hemen, eta horrekin lotutako sentimendu eta ideiekin. Auzi hau ez da iraganeko kontua, balio unibertsalen aldean “partikularitasunera” kondentzen gaituena. Aitzitik, globalizazioaren krisiaren garai honetan funtsezko aldagai bilakatu da. Izan ere, globalizazioaren arrakastaren ospakizunak atzean utzita, burujabetzaren aldeko diskurtsoak indarrez datoz bueltan. Neoliberalismoak taldetasuna hausten du, kolektiboa, komuna, publikoa dena privatizatuz; norbanakoa bakar-bakarrik nahi du merkatuaren aurrean. Jendarte hauskor eta zatikatuak dira gaurkoak, talde baten parte sentitzeko premia bizia dutenak. Identitatearen eraikuntzari, nor izateari (nor-tasunari), edo, nahi bada, herri-kontakizunari etorkizuneko proiektio eraldatzailea emateaz ari gara.

Berritze ideologiko hau ezkerreko independentismoak fase politiko honetan behar duen berrikuntza ideologikoaren parte da, eta, beraz, erabat txertatuta behar du askapen egitasmoaren corpus ideologikoan. Euskarak askapen egitasmoan izan duen erdigune simbolikoa birdefinitzea da proposatzen ari garena.

Ezkerreko independentismotik hitz egiten dugu. Ez diogu hau denik euskarak behar duen diskurtso bakarra, inolaz ere. Mugimendu euskaltzalea biziberritzeko bektore ideologiko bat proposatu dugu, balio kualitatibo bat ikusten dioguna. Gaude gaurko gazteek euskararen aldeko hautu kontziente bat egingo badute, tresneria ideologiko indartsu bat behar dutela eskura, krisi-aro global honetan norberatasuna eraikitzeke baliagarri gertatuko zaiena eta gutasun baten parte egingo dituen. Izan ere, datozen hamarraldietan ere euskararen aldeko hautua egitea korrontearen kontra egitea izango da, izugarri

bortitza den korrante baten kontra (mundu neoliberal honen indar disolbatzailea).

Baina euskarak diskurtso gehiago ere behar ditu: erakargarritasunarena, prestigioarena, hizkuntz ekologiarena, eta abar. Herritarrak euskarara hurbiltzeko eraginkorrak diren diskurtso eta motibazio-adar guztiak dira beharrezkoak eta baliatu beharrekoak. Diskurtsook ez daude elkarren arteko lehian, osagarriak dira.

Prozesu independentista: jauzi berri baterako oinarri estrategikoak

Gurea bezalako proiektu subiranista batek estrategia sendoa behar du, arnasa luzekoa, momentu eta gertakari jakinen kudeaketatik harago doana. Lurzorua jar dezagun lehenik: burujabetze prozesuaren garapenerako helduleku zurririk bada, helduleku hori, zalantzarik gabe, euskal jendartearen energiak askatzean datza; hots, geure herriaren gaitasun eratzaillean (konstituentean). Euskal Bidea ekarpen estrategikoan idatzi genuenez, herria da ahalduntze kolektibo gisa irudikatzen dugun burujabetze prozesuaren subjektua.

Euskal egitasmu nazionalaren oinarri sinbolikoak eta programatikoak eguneratzeko momentua da. Zibilizazio krisiaren garai historikoan murgildu gara. Independentismoak herri-egitasmu sendo bat josi behar du, narratiba berri bat zehaztasun programatiko nahikoarekin. Bizitza duinerako euskarri publikoak eskaini eta giza-segurtasun emai-le izango den herri-egitasmu bat mahaigaineratzeko garaia dugu.

Hiru lurralde-eremuetako (Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Iparraldea) berezitasun eta erritmoen arabera da gure estrategia nazionala. Behetik gorako herri-erakuntza, lurralde-eremu bakoitzeko euskal herritarren erabakimenean oinarritua. Hiru demos eta hiruen artean berdinen arteko harreman juridiko-politiko helburu. Herri-narratiba eta agenda programatiko komuna, bakoitzaren erritmo eta berezitasunen arabera deklinatu beharrekoa, beraz.

Esan dugunez, proiektu subiranista garaiko erronka sozial kolosalei atxiki behar zaie. Ohar gaitezen astinaldi sozial handien garaian murgildu garela. Horregatik, ezinbestekoa zaigu garaiko zentzu komuna ondo hautematea. Herri-bulkada berdinzaleak mahaigaineratzen dituen aldarrikapenak politika publiko konkretuetara itzuli eta gauzatzeko saiatzea dagokio ezkerreko independentismoari, partzialki bada ere; eta bide horretan, dependentziaren kostuak agerian jarritz, burujabetzaren aldeko pedagogia sozial zorrotza egitea. Egikaritu beharreko politika publikoen artean dugu hizkuntza politika berria.

Aldebikotasuna eta aldebakartasuna, ez dago dikotomiarik honetan. Gure estrategia ezin da aldebakotasunean oinarritu, horrek giltza estatuen eskuetan uztea esan nahiko lukeelako; baina ezta aldebakartasun hutsean ere. Beti ere euskal gizartearen baitan hegemonia erdiestea helburu, hala Estatu deslegitimatzeke nola nazioartearen konplizitatea irabazteko, behar-beharrezkoa da independentismoak gatazka politikoa elkarrizketa eta negoziazio bidez konpontzeko borondatea agertzea, eta hartarako proposamen zehatzak luzatzea behin eta berriro.

Bestalde, akordioak herri-prozesu autozentratuaren mesederako izan daitezke, eta hala izan daitezen bilatu behar dugu: aldebakartasunaren mesederako aldebikotasuna. Ongi kudeatutako akordioek Estatuaren krisia areagotzeko balio dezakete, oinarri subiranista zabaldu eta beraren eraginkortasuna areagotzeko bitartekoa izan daitezke, baita konfrontazio demokratikorako bide berriak irekitzeko giltza ere.

Gutxieneko polarizazioa ezinbestekoa da hegemonia subiranistaren lehiarako. Beti ere uneak, gaiak eta moldeak ondo aukeratuta, ezkerreko independentismoak gizarte-mobilizaziorako mekanismoak sustatu behar ditu, Estatuaren posizioa baldintzatu eta independentismoaren aldeko pedagogia soziala egiteko baliagarria den polarizazioa helburu. Polarizazio-ardatzak ondo hautatzeko gakoa izango da euskal gizartearen baitako joerak ondo hautematea, gizartearen ezagutza sakona izatea.

Helburu estrategikoak: euskalduntze fase berriaren helburuak

Helburu estrategikoa Euskal Herri euskalduna izanda, datozen bi hamarkadetarako helburua da ordurako euskararen normalizazioa bermatuko duten funtsezko erabaki politikoak eta sozialak hartuta egotea eta horiei dagozkien ezinbesteko lehen urratsak eginda egotea: euskararen estatus ofiziala; ezagutza unibertsala; hizkuntza politika osoa eta koherentea plano sozialean eta politiko-instituzionalean....

Aipatutako erabaki politiko eta sozial horiek eta lehen urrats horiek prozesu bat dira, eta ez balizko E egun batean gauzatuko den akordio hutsa. Eta, bide horretan, hizkuntzaren normalizazioa sustatuko duten urratsak egiten jarraitu beharko da, gaur egun indarrean dagoen baina aski eza den hizkuntza politika errotik aldatuz, eta hizkuntza politika bizkorrago eta sendoago bat aplikatuz.

Hala ere, helburu horren formulazioan planteatzen diren oinarriak eta ardatzak, gure ikuspegian, Estatu baten errealitatetik eta egituretatik dira gauzagarri eta bideragarri. Estatu egiturarik gabe ere asko egin daiteke, ez gaude ezeri ez inori itzaroteko moduan; baina era berean esan daiteke euskalduntzean urrats kualitatiboak egiteko estatus juridiko-politiko burujabeak behar ditugula. Estatu ikuspegia duen hizkuntza politika holistiko baten bermea behar du euskararen normalizazioak.

Jauzi kualitatibo bat behar dugu gure autogobernuan, euskarari berezko hizkuntzaren estatus juridikoa aitortuko diona, ofizialtasuna emango diona eta euskara jakitea eskubide eta betebeharrak gisa jasoko duena.

Gorago aipatutako helburu orokorraren osagarri, eta epe laburreko kudeaketak eska litzakeen helburu zehatzagoetatik eta hurbilagoetatik harago, datozen hamarkadetako gizartearen nahiz euskaltzaleen aktibazioarekin, erakundeetan egin beharreko lanarekin eta borrokarekin nahiz hizkuntza ideologiaren inguruko lehiarekin lotutako bestelako helburu batzuk ere definitu daitezke, euskalduntze fasearen bide-orria marrazteko garaian kontuan hartuak izan daitezten. Honakoak, besteak beste:

- Euskalgintza aktibatua, beregaina eta behar bezala egituratua beharko du euskalduntze prozesuak, militantez, kidez eta egituraz behar bezain hornitua, eta unean-unean indarrean egonen diren hizkuntza politika horietan eragiteko adinako mobilizazio mailari eusteko gai izanen dena.

- Hizkuntza politika erakunde publikoen eta administrazio-atal ezberdinen egiteko hutsa izaten utzi gabe, gizarteak, bere osoan eta bere luze-zabalean, hizkuntza politikaren eragile, sustatzaile eta parte-hartzaile izan beharko du, termino egokietan eta behar duen zentraltasunarekin euskara eztabaida politikoaren eta sozialaren erdigunean jartzeko.
- Euskalduntzearen fase berrian prozesua bera zabaldu, gorpuztu, bizkortu eta zentzu berriaz elikatuko duen interseksionalitatearen bidean urratsak egin beharko dira. Euskalgintzak, eta euskararen aldeko ekimenak oro har, aliatuak bilatu beharko ditu, besteak beste gainerako borroka sozialetan eta emantzipatzaileetan euskara txertatuta.
- Euskal Herria bere osoan hartuko duen hizkuntza politikarako eredu oso eta koherente bat osatu behar da, euskara bere lurraldearen luze-zabalean normalizatzea ekarriko duena. Halaber, horren osagarri, eta errealitate soziolinguistiko ezberdinak aintzat hartuta bada ere, lurralde eta administrazio orotan euskararen normalizazioa gauzagarri egingen duten hizkuntza politikak eta hizkuntza planak abian egon beharko dira.
- Euskarari, normalizazio prozesuaren hasiera-hasieratik eta edozein hizkuntza-politika egokiren abiapuntu gisa, normalizazio hori lagundu, babestu eta sustatuko duen estatus egokia eman behar zaio. Ofizialtasun osoa aitortu beharko zaio, horrenbestez, eta, horrekin batera, hizkuntza eskubideen bermea lurralde osoan.

- Euskalduntze fase berria abiatu eta hizkuntza politika berria gauzatuko bada, gobernantza eredu berri bat ezarri beharko da, euskalduntze prozesu horri lotuko zaizkion eragile sozial eta politikoen esku-hartzea eta eragiteko gaitasuna modu eraginkor eta bidezko batean gauzatuko dela berma dadin.
- Euskararen normalizazioak aurrean izanen dituen erronkei eta zailtasunei aurre egiteko ezinbestekoa izanen da euskal hiztunak, denak ez badira zati esanguratsu bat gutxienez, hiztun kontzientea eta aktiboa izatea, ahaldundua, hizkuntzak eta hiztunak berak bizi duen egoeraz jabetua, baita hiztunari dagozkion eskubideez kontziente ere.
- Globalizazioaren eta uniformizazioaren korrontearen aurrean, gizartean eta oro har herritarren artean, munduko hizkuntza aniztasunaren eta euskararen aldeko narratiba eta diskurtsoa hegemonikoa izatea lortu beharko da. Euskararen eta oro har hizkuntzen inguruko diskurtsoak eguneratuta eta egokituta egon beharko du, berrituz joanen diren herritarren motibazioei, ideiei, interesei eta desirei egoki erantzuteko, hizkuntzaren normalizazioak ongizatearekin ere zerikusia duela erakusteko, eta euskara horien guztien hizkuntza izan daitekeela frogatzeko.
- Euskararen egoeran hizkuntzaren zapalkuntza historikoak izan duen esanahia eta garrantzia jasotzen eta azaltzen jakin beharko da, euskararen etorkizuna euskararen beraren iragana eta oraina ere ulertuz erabaki dadin.

Lau helizedun errota

Hizkuntza, politika eta hizkuntza-politika berria

Ideologia neoliberalak hegemoniko bilakatu zaigu eta gure bizitzako bazter guztiak busti ditu, baita hizkuntzari dagozkionak ere. Ideologia horrek kultura aniztasuna merkatu parametrotan ulertzen du eta kulturak nahiz hizkuntzak merkatuko produktutzat edo zerbitzutzat ditu, kontsumo-gai bilakaturik. Hizkuntzei duten izaera politikoa erabat erazi nahi diete. Norbanakoen askatasunaren mantra hizkuntzaren esparrura eraman dute, hiztunon hizkuntza aukeratzeko askatasunaren ideia hauspotuz. Horrek, noski, hizkuntza-normalizazio prozesua bultzatzeko politika publikoen esku-hartzea gaitzestea dakar; edo, onenean, esku-hartze horren eraginkortasuna gutxiestea.

Horren aurrean, hizkuntzen izaera politikoa aldarrikatzea dago-gigu. Hain zuzen ere, politika gizarte-bizitza antolatzeke jarduerak gisa

ulertuta, gizarte-bizitza partekatu ahal izateko hizkuntza ezinbesteko bitartekoa baitugu. Izan ere, partekatu gabeko hizkuntzarik gabe ezin baitugu komunitate-bizitza kudeatu. Aitzitik, hizkuntza partekatuaren komunikazio-espazioan eraikitzen dira komunitateak. Are gehiago ulertzen badugu sozializazio prozesuan gure hiztun-herriaren kultura eta mundu-ikuskerara jasotzen ditugula hizkuntzaren bidez, gure nortasunak zizelkatuz.

Horrela, hizkuntza-normalizazio prozesua, hizkuntzen arteko sedukzio-lehian baino, botere-lehian jokatzen den prozesua dugu. Eta, nola ez, askatasunaren ideal neoliberaletik urrun, botere-harreman horien baitakoa da gizartean nagusitzen den hizkuntza-praktika edo erabilera. Alegia, norbanakoen praktika eta ekimen kolektibo antolatua beharrezkoak izan arren, hizkuntza galera prozesu guzti-guztietan gertatu bezala, normalizazio prozesuetan ere ezinbestekoa zaigu botere eta politika publikoen erabilera, botere betearazlearena hain zuzen. Beraz, hizkuntza-normalizazioak ikuspegi hori bere baitan izango duen hizkuntza-politika garatzea eskatzen du.

Hori esanda, orain arteko hizkuntza-politikak aski ezak izan direlako ebidentzia saihetsezinaren aurrean, hizkuntza-politika berria ezinbestekoa da. Jada, beste deusi itxaron beharrik gabe, eta indar betez abiatuta.

Lehen erronka, beraz, hizkuntza-normalizazio prozesuaren izaera politikoa birkokatzearekin batera, prozesu hori aurrera eramateko politika publikoen, hizkuntza-politikaren beharra mahaigaineratzea da. Horri begira, hizkuntza-politika berrirako oinarriak jartzeko gogoe-

tak, proposamenak, eragiletza jarduna eta esperientzia praktikoak garatuz.

Alegia, gaur egungo egoera irauli eta hizkuntza-politikak eztabaidaren erdigunean jartzeko, lanketa hori garatuko duen ekosistema oso bat eraiki beharrean gaude. Hemen proposatzen diren ildo estrategikoen bidez, besteak beste, ekosistema hori osatu eta indartzen joatea aurreikusi da. Hona irudikatzen ari garen ekosistema eta ildo hauen arteko loturaren nondik norakoak:



Eskema horrek, irudian ikus daitekeen moduan, lau atal dauzka problematizaziotik abiatzen den eta alternatibak gauzatzera iristen den hurrenkera batean, eta atal horietako batzuek baita azpiatalak ere, mahaigaineratutako estrategia operatibizatzeko ildo estrategikoak eta ekimen zehatzak jasotzen dituztenak. Honatx horien guztien azalpena:

1. **Problematizazioa:** eskeman ikus daitekeen bezala, hizkuntza-politikaz jarduten hasteko hizkuntzaren auzia problematizatzea da lehen urratsa. Lehen esandako bidetik, hizkuntzaren auzia auzi politikotzat agertu edo kokatu beharra dago, ondotik neurri politikoak hartu beharra aldarrikatuko bada. Horretarako, beharrezkoa da problematizazioan subjektu nagusia den euskararen gizarte mugimenduaren edo euskalgintzaren indarberritzea garatzea, 7.2 atalean proposatzen den bidetik.
2. **Gogoeta, ikerketak eta diskurtsoak:** atal honetan, hizkuntza-politikari begira ikuspegi prospektiboa eta propositiboa izango duten gogoeta, ikerketa eta diskurtsoak garatzeari eta gizarteratzeari buruz ari gara.

2.1. **Hizkuntza-politiken inguruko gogoeta, ikerketa eta iritzia sortzeko gunea:** hizkuntza normalizazioaren pisua norbanakoen bizkar jartzen duen ideologia liberalaren aurrean, hizkuntzaren normalizaziorako hizkuntza-politiken zeregina eta ezinbestekotasuna azaldu beharrean gaude. Horretarako, hizkuntza-politikaren eta hizkuntzaren berreskurapenaren inguruko oinarri teorikoa eta zientifikoa osatu behar da. Horien inguruko iritzi sorkuntza, jakin-

tza eta ezagutza sustatuko duten eragileak eratu eta gorpuztu behar dira, hizkuntza-politika berriari oinarri aski sendoa emanen diotenak.

- 3. Alternatibak proposatu, bultzatu:** hizkuntza-politikarako alternatibak eta bestelako eruedetan oinarritutako proposamen zehatzak mahaigaineratu eta bultzatu beharra dago.

3.1. Bultzada politikoa: hizkuntza-politika berriak ezinbestean beharko du eragile politikoen babes eta bultzada. Ezkerreko independentismoa aspalditik dago euskalduntzeko egitasmu zabal horretan inplikaturik, aspaldi ari da hizkuntza-politika berri bat eskatzen, eta aurrerantzean ere ezinbesteko aktorea izanen da politika berri hori aldarrikatzen eta eskatzen jarraitzeko, eta, jakina, bere esku dagoen neurrian gauzatzeko. Ezker independentistak, beraz, hizkuntza-politika berri horren gauzatze praktikoa ahalegin osoa egin eta inplikatu beharko du.

3.2. Bultzada soziala: eragile politikoen bultzadaz gainera, hizkuntza-politika berriak gizartearen babes eta bultzada ere beharko ditu. Politika berri hori eskatu, babestu eta sustatuko duen korronte indartsua beharko da, hartu beharreko neurriei koltxoi egozia emanen diona, eta koltxoi hori askotariko ekimen berritzaile, indartsu, ilusio-sortzaile eta bestelakoekin elikatu beharko da.

3.3. Euskalgintzaren autoritatea indartu: aurreko bi azpiataletan aipatutako bultzada hori suspertzeko, hizkuntza-politikaren eragile, sustatzaile, begirale eta, hala dagokionean, laguntzaile, euskararen gizarte mugimenduak egon behar du; erakunde pu-

blikoekiko solaskide eta eragile gisa jokatuko duen mugimendu kohesionatu eta beregaina osatuz, eta gizartearentzat oro har erreferentzia bihurtuz.

- 4. Alternatibak gauzatu:** aukerak sortzen diren guztietan politika publiko edo hizkuntza-politika berri horiek gauzatzera jo beharko litzateke. Horien gauzapen praktikoaren ondorioak ezagutzeko eta horien baitan, berriro ere, auzia birproblematizatzeko.

4.1. Gobernantza eredu berri bat: hizkuntza-politika horren definizio, diseinu eta inplementazioan bakoitzak bere funtzio eta autonomia izanik, administrazio publikoak eta euskalgintzak parez pare jardungo duten kogobernantza edo gobernantza eredu komunitarioa bultzatu beharko da. Gaiaren inguruko ezagutza teorikoa eta teknikoa oinarri hartuta, baina betiere erabaki politikoak bi alde horien artean adosten saiatuz.

4.2. Udalgintza aitzindari: udalgintzak hizkuntza-politikan egin dezakeen ekarpena azpimarratu beharra dago, herritarrengandik gertuen dagoen administrazio atala delako, batetik, eta euskarekiko konpromisorik handiena eta zintzoena duen indar politikoak bertan duen eragin-gaitasunagatik, bestetik. Hori oinarri hartuta, ezinbestekoa izango da udalgintzatik hizkuntza-politika eraginkorrak ezartzeko apustu irmoa egitea. Aldi berean, estatuak (edo estatu gabeziak) ezartzen dituzten mugak agerian utzi beharko dira, hori guztia aurrez aipatutako gobernantza eredu berrian oinarrituz.

Euskalgintza indarberritzea

Euskalduntzearen gisako erronka bat herri-mugimenduaren bultzadaz baino ezin gauza daiteke. Lehen esan dugun bezala, premiazkoa deritzogu mugimendu euskaltzalearen biziberritzeari. Ametsa barreiatuko duen mugimendua behar du garai honek, euskal hiztun kontzienteak sortzeko gai diren praktika diskurtsiboak. Hain zuzen, proposatutako berritze ideologikoaren bidetik, hizkuntza eskubideen eta justizia sozialaren aldarria herri-egitasmo emantzipatu batekin josiko duen praktika diskurtsiboa faltan dugula deritzogu, euskaltzaletasuna garaiko mugimendu sozial emergenteekin (feminismoa, ekologismoa, arrazakeriaren kontrakoa) sintonizatu eta artikulatuko duena. Euskalgintzaren biziberritze horretarako hiru bide proposatuko ditugu hemen.

Lehena urte luzeetako borroka-jarioa eguneratzea da. Aipatzeko modukoak dira, ekarri duten berritasunagatik besteak beste, norbanakoaren ekintza performatibo gisa hasi eta gerora ekimen kolektibo berritzaile bihurtu diren ekimenak, auzoak eta herriak ere bilduz (Egia, Lasarte...). Euskal hiztunak ahalduntzearen bidez hizkuntza gatazka esplizitatzen eta izendatzen ere lagundu dezakete ekimenok, besteak beste. Errekasto hura emari handiko ibai bilakatu da Euskaraldiari esker. Potentzial handiko ekimena da, aldaera ezberdinak izan ditzakeena eta tokian tokiko errealitatera egokitzeko aukerak ematen dituena. Ekimen honek ez-euskalduna modu abegikorrean interpelatzen du, eta horrela behar du. Baina, aldi berean, interpe-lazio hori bera beste maila batzuetara eramango duten ekimenen faltan ere bagaudela deritzogu. Feminismoak egiten duen bezala,

hizkuntza gatazka azaleratuko duen lan-molde eta forma askotariko praktika politiko euskaltzale baten premia dugu, hizkuntzaren auzia problematizatu eta hizkuntza politiketan aldaketak beharrezkoak direla ikusaraziko duena.

Interseksionalitatearen bidea jorratzen duen elkargunearen ideia da bigarrena. Feminismoaren, ekologismoaren edota arrazakeriaren kontrako mugimenduaren eta euskaltzaletasunaren arteko gurutzaketak bilatzea. Hizkuntza praktika kontziente bat egiten dugun euskaldunon azpiratzea bestelako menderakuntzekin gurutzatu dadin. Horrela, menderakuntza-sistema ezberdinetako botere-harremanak esplizitatzeko eta elkar ahalduntzeko guneak sortuz. Euskararen feminismoaren, ekologismoaren edota arrazakeriaren kontrako mugimenduaren hizkuntza izan dadin, mundu berri baten ametsaren gogo-eroale bihur dadin. Globalizazio neoliberalaren totalitarismo berriari aurre egiteko lekune bat, praktika bat, politika eta estetika bat (ez hori bakarrik, baina hori ere bai). Talde feminista euskaltzaleak, ingurumenaren zaintza sustatzen duten mendi-talde euskaltzaleak, herri hezitzaileen filosofian txertatutako esperientziak, eta abar.

Hirugarrena kultur eskolen ideia garatzean datza. 7.4 atalean proposatzen denaren haritik, euskalgintzak, hizkuntzaren jabekuntza hutsetik harago, komunikazio sinbolikoan, afektiboan eta kultur komunikazioan jarri behar du arreta. Bide horretan, esperientzia kolektiboak sortu eta trukerako espazio aproposak sortzea sustatu behar da, sormen-lana herrikideen arteko komunikazioa eta harremana hobetzeko bide izan dadin (elkar ezagutzeko bide), edo esperientzia partekatu bat bizitzeko aukera, eta hortaz, komunitatearen trinkotzean eragin dezan.

Kultur eskolen zentzua har dezaketen esperimentazio guneak sustatzeaz ari gara. Azpeitiko Kultur Mahaiaren bueltan sortu den dinamika kulturala izan liteke halako zerbaiten adibide garatuenetako bat, zeinak kultur politikak herri-eragileekin koordinatzeko eredu eraginkor bat sortu duen. Kultur Mahai horrek kultur egitasmo ugari jarri ditu abian, guztiak kulturgintza sustatzeko urrats eredugarri direnak: Dinamoia Sormen Gunea, Hitzzen Eskola, eta abar. Halaber, Udalbiltzak iazko abenduan aurkeztu zuen “Geuretik sortuak” ekimena eredugarritzat jotzen dugu, Euskal Arte eta Kultur Eskola Nazional baten sortze prozesu esperimental baten ernamuina izan daitekeen neurrian.

Arnasguneak

Bada azken urteotan euskararen normalizazioaren inguruan indar handia bereganatu duen ideia edo kontzeptu bat: arnasguneen ideia, hain zuzen ere. UEMA bezalako eragile batean gorpuztu delako, baina baita euskalgintzaren luze-zabalean onarpen-maila handia lortu duelako ere. Euskarak arnasguneak behar-beharrezkoak ditu, euskarari arnasa ematen diotelako, eta ez bakarrik herri euskaldunetan bertan, baizik eta baita oro har ere. Arnasgune diren herri horietan Euskal Herri euskalduna izan litekeen horren proiektiorik argiena egin liteke, eta bidea praktikan urratu eta ireki. Euskara bizi-bizirik dagoen guneak dira, eta soziolinguistikak aspaldi esana da hizkuntza orok espazio hegemoniko horien beharra duela.

Arnasguneak, euskararen espazio hegemoniko horiek, herri euskaldunak dira edo izan daitezke, baina baita hori baino gehiago ere. Euskara hegemonikoa den bestelako espazio soziofuntzionalak ere izan daitezke arnasgune, eta izan behar dute: ikastetxeak, enpresak, elkarteak, eragile sozialak, administrazio-atalak, lagunarteak... Euskara hegemonikoa den harreman-sareak edo espazioak askotarikoak izan daitezke eta izan behar dute, fisikoak nahiz birtualak.

Azken urteetako datu soziolinguistikoek, ordea, udalerrri euskaldunen egoera soziolinguistikoan atzerapausoak gertatu direla erakutsi dute. Hainbat ikerketaren arabera, atzerapauso horiek hizkuntza-politikako sailetik aparteko politika publikoek bultzatuak izan dira (etxebizitzak, turismoa, garraiobideak...). Besteak beste, agerian geratu da udalerrri horien egoera zaurgarria eta inguruarekiko interdependentzia.

Horregatik, beharrezkoa da udalerrri euskaldunen garapena ikuspegi zabaletik lantzea. Hizkuntza-politiken zeharkakotasuna oinarri, politika publiko guztietan arnasguneen garapena aintzat hartuz, bide horretan administrazio maila desberdinen koordinazioa bermatuz eta arnasguneen babes juridikoa landuz.

Politika publiko horiek behar den tamaina eta eraginkortasuna izan dezaten, arnasguneek euskararen normalizazioan duten pisua-ren eta garrantziaren ezagutza eta aitortza politikoa ere beharrezkoa da, arnasguneak ere euskara biziberritzeko estrategiaren eta bide-orriaren erdigunera ekartzeko. Erakunde publiko nagusiek erabaki politiko sendo eta argia hartu beharko lukete, erabaki politiko horrek

arnasguneen egunerokoan eta etorkizunean askotariko ondorioak sor ditzan erakundeetatik sustatzen diren politiketan: lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan, tokiko garapenean, jarduera soziokulturalean, araugintzan, bideragarritasun sozioekonomikoan... Adierazpen instituzionala, azken batean, konpromiso politiko baten gainean eraikia, ondoren politika sustatzaileak aktibatuko dituena.

Bestalde, euskararen normalizaziorako oinarritzkoa da arnasmuneak hedatzea, gero eta eremu berri gehiago arnasmune bilakatzea, hain zuzen. Horretarako, beraz, ondorengo urteotan apustu berezia egin beharko da udalerrri euskaldun izatetik hurbil dauden udalek urrats hori egin dezaten eta udalerrri euskaldunek arnasmune izaera eskuratu dezaten.

Eta arnasmuneen hedatze horrek ez du udalerrrietara soilik mugatu behar. Eremu soziofuntzionaletan ere arnasmune berriak eratzeko erronkari heldu behar diogu: kirol taldeak, aisialdi taldeak, enpresak... euskararen arnasmune bilaka daitezen urratsak egin eta bultzatu behar dira, askotariko eremu soziofuntzionaletan bide urratzaileak eta ereduak sortuz eta euskararen aldeko arau soziala hantzen zabalduz.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak agerian jarri bezala, berebiziko garrantzia du arnasmuneak saretzeak. Batetik, haien garapen soziolinguistikoa bultzatzeko eta horretan laguntzeko, baina, bestetik, sare horretan sinergiak landuz, inguruan ere eragiletza funtzioa bete dezaten. Horrela, udalerrrien eremuan egin den saretzea bultzatzeaz eta indartzeaz gain, bide hori eremu soziofuntzionaletan

ere urratu beharko litzateke, arnasmune diren espazio horiek elkarrekin lotuz eta josiz, euskara nagusi den espazio horiek zabaltzeko eta indartzeko.

Herri kontakizuna birsortzeko bulkada kulturala

Azken hamarkadetan euskaldundu diren herritar asko ez dira kultur komunikazioan trebatu. Are gehiago, horietariko askok transmisio-egitura batzuetan jarduten dutenez (esate baterako, irakasleak), hizkuntzaren eredu funtzionala nagusitu da.

Komunikazio tresna hutsa baino gehiago izan behar du euskarak. Hizkuntza kultur sistema beregain baten abaroan baino ezin daiteke garatu, are gehiago teknologiak zuzeneko itzulpengintza posible egingo duen aro digitalean eta, ondorioz, funtzionaltasuna orain arte ezagutu ez ditugun bideetatik bilatu ahal izango denean. Euskalduntze prozesuari atxiki behar zaion kultur politikak, hizkuntzaren jabe-kuntza hutsetik landa, komunikazio sinbolikoan, afektiboan eta kultur komunikazioan jarri behar du lehentasuna.

Sarri zein bere bidetik joan diren euskalgintza eta kulturgintza elkar hartzeko beharrean dira, biak ala biak. “Euskara ala Ezkara” jardunaldietan esandakotik: “Guri iruditzen zaigu euskararen erabilera ez dela zabalduko kulturaren praktika bizkortzen ez bada errekako ur freskoa bezala. Aldi berean, kulturgintzak ez du osasuntsu irauteko aukerarik izango baldin eta euskarari ematen ez badizkiogu behar dituen argia eta indarra”.

Herri-kontakizuna: nor izan

Laugarren atalean esan bezala, kultur homogeneizazioa da neoliberalismoaren lanabes eragingarrietako bat. Desira eta espektatiba berdinak ditugun pertsonak nahi ditu munduko edozein lekutan. Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek adierazi dutenez, neoliberalismoaren ideologiari, subjektibotasunari eta sistemari galga, besteak beste, hizkuntzaren, kulturaren eta herrien garapenak jarriko die.

Neoliberalismoak mundu totalitario bat sortu du, subjektibotasun bakar bat, kontsumo eta merkantilizazio erabatekotik pasatzen dena, zeinari iskin egitea geroz eta zailagoa zaigun. Finean, neoliberalismoak taldetasuna hausten du, kolektiboa, komuna, publikoa dena pribatizatuz. Bestelako bizimoduak eta mundua irudikatu eta, bestelako balioak eta desirak aurkitzeko zirrikituak itxiz, bakar-bakarrik nahi gaitu merkatuaren aurrean.

Ondorioz, krisi identitario bat bizi dugu: gizarte hauskor eta zatikatuak dira gaurkoak, giza-segurtasun materialaz gain talde baten parte sentitzeko premia bizia dutenak. Nitasun berriak eraikitzeko ezinbestekoak diren gutasunen faltan gaude, baldin mundu totalitario honi beste mundu bat kontrajartzeko gai izango bagara.

Horregatik, edozein proposamen eraldatzailek indar berezia egin behar du iruditeria nazionalean erroturik dauden memoria eta sinesmenei (mundu ikuskerari) lotzen; finean herri-kontakizuna birsortzen. Eta, momentu honetan, gure herri-kontakizuna birsortzeko makineria artistikoa ahula da. Ez dugu herritar gisa gure historiaz jabetzeko arterik, edo gutxi, eta, zentzu horretan, ez gara existitzen. Ez

dugu aukera sendorik komunitate gisa identifikatzeko, haserretzeko, pentsatzeko, pozteko; ez dugu irakurketa sentsible bat adierazteko esparru sendorik.

Honexek behar du, beraz, euskalduntze fase berriaren ildoetako batek: herri-kontakizuna birsortzeko bokazioa duen bulkada kultural baten bilaketak. Kulturaren “Bai euskarari” behar dugu.

Kultur ekosistema erresilientea

Eta, horretarako, kultur ekosistema osasuntsu bat behar dugu. Sor-tzaileen egoerari, kultur industriari, hedabideei, unibertsitateari zein eskolari begiratuta, begi bistakoa da gurea ahuleziak jotako kultur ekosistema dela. Analisi orohartzailerik egiteko asmorik gabe, aipa ditzagun hainbat faktore: epe laburrean neurriak hartzen ez badira, ekoizpen-gune egonkorretariko batzuen iraupena kolokan egongo da (esate baterako, argitaletxeak); ikuskizunaren kultura sustatzen da batez ere, eta kulturak herritarren nortasunaren eraikuntzan zein ko-munitate-eraikuntzan eragina izan dezan bestelako eredu bat izan behar du ardatz; barne-transmisioa herri-ekimenak, elkarteek, uda-lek sustatzen dute batez ere; edota euskal kulturaren curriculum ga-raturik ez dago eskuragarri.

Finean, estatu seneko kultur politika berri bat behar dugu, lau ildo nagusitan eraginez kultur ekosistema erresiliente bat erdiesteko: sormena bultzatu, plazak bete, komunikazioa landu eta transmisioa bermatu.

Azken hitza

Azken hiru urteak hainbat forotan (Euskararen Plaza Hutsa, mintegiak edota herrietako aurkezpenak) ezker independentistako kideen iritziak biltzen igaro ditugu. Eztabaida aberatsa eta hausnarketa sakona egin dugu. Liburuxka hau da eztabaida eta hausnarketa horren emaitza. Zeharo borobila ez den emaitza, ibilian ibilian osatzen joan beharko garena. Baina, abiapuntu gisa, oinarri sendoa dena.

Inoiz ez dugu hausnarketarik egin gure buruekin asebeteta geratu, liburuxka eder bat osatu eta apal batean hautsa hartzen uzteko. Osatu dugun liburuxka bakoitza bezala, liburuxka hau ere borrokarako tresna da. Euskal Herriaren berreuskalduntzean fase berri bat irekitzeko garaia da. Hori da, hain zuzen ere, datozen hilabete eta urteetan ezker independentistatik euskalgintzarekin nahiz bestelako eragile sozio-politikoekin sustatuko duguna. Arnasberritu gaitezen eta euskalduntzean jauzi berri bat egin dezagun.





